

# AREATZAKO LUDOTEKA

## 2020-2021 IKASTURTEA

**IZEN EMATEA:** IRAILAK 29, 30 eta URRIAK 1, 2. Ludotekan 17:00-19:00.

**IREKIERA:** URRIAK 5

**ORDUTEGIA:** 17:00-19:00

### TXANDAK ETA EDUKIERA

- Areatzako Herri Eskolako irizpidea jarraituz, ludotekako txandak eskolako talde itxien arabera antolatuko dira. Egun bakoitzean, talde itxi batekoak etorriko dira, txanda bakarrean.

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	BARIKUA
HH 3 (2017)	LH 1-2 (2013-2014)	HH 4-5 (2015-2016)	LH 3-4 (2011-2012)	LH 5-6 (2009-2010)

**EDUKIERA:** Segurtasun tartea bermatzeko, 14 erabiltzaileko muga ezarri da.

\*\*Ludotekako edukiera gainditzen bada, egun berean bi txanda antolatzea aztertuko da.

### SARRERA ETA IRTEERA

- Zerbitzuan izena eman duten partaideak bakarrik sartu ahalko dira ludotekara.
- Erabiltzaileen familiek ezin izango dute INOIZ ludotekan sartu.
- Sartu eta irteteko bi ordutegi aukera eskainiko dira:
  - **Sarrera: 17:00 edo 18:00. Plazako atetik.**
  - **Irteera: 18:00 edo 19:00. Goikokaleko atetik.** Sartzean haurra noiz irtengo den jakinarazi beharko da.

### SEGURTASUN ETA HIGIENE NEURRIAK

- Sarreran eta irteeran osasun neurriak hartuko dira: Tenperatura hartzea, eskuen garbiketa eta zapaten desinfekzioa.
- Egunero ludotekara datozen haurren erregistro zehatza jasoko da.
- Mosukoaren erabilera derigorrezkoa izango da, arauak agintzen duen bezala.
- Jarduerak egiteko kalearen erabilera lehenetsiko da.
- Ludoteka barruan segurtasun tartea eta aireztatzea bermatuko dira.

- Talde bakoitzak material propioa izango du.
- Komunak: Jardueretan, komunak itxita egongo dira, eta banaka erabiltzeko irekiko dira, pertsona arduradunak gainbegiratuta. Pertsona hori arduratuko da erabili ondoren desinfektatzeaz.
- Espazioa eta ekipamendua egunero garbituko dira.

## FAMILIENTZAKO JARRAIBIDEAK

1. Ez duzu ludotekara bertaratu behar, baldin eta COVID-19 gaitzarekin lotutako sintomaren bat baduzu (eztula, sukarra >37°C, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Ludotekako harreraren tenperatura hartuko bada ere, etxetik tenperatura hartuta etortzea gomendatzen da.
2. Haurrak sintomak baditu etxean, familiak ludotekako hezitzailea jakinaren gainean edukiko du. **HARREMANETARAKO TELEFONOA: 688739058**
3. Sarrera-lrteeran, haur bakoitza heldu bakar batek lagunduta etorriko da. Atarian jende pilaketak saihestu behar dira eta segurtasun tarteak mantendu.
4. Lehen Hezkuntzako haur guztiek izan beharko dute bere maskara, higiene-baldintzak bermatuko dituena. Haur hezkuntzako haurren kasuan ez da derrigorrezko betebeharra, baina bai gomendagarria.
5. Familiak lankidetzan arituko dira ludotekako oinarrizko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin bat eginez. Aholkatzen da ahalegina egitea seme-alaben arteko harremanak eskola-orduetatik kanpo ere, eskolako talde egonkorreko ikaskideekin izan daitezen, kutsadurak gutxitzeko.

**\*\*\* Ludotekako eguneroko funtzionamenduaren egokitasuna bermatzeko, eta gaitzaren garapenaren arabera, antolaketa eta arauak aldatzea gerta daiteke.**